

DIRU-SARRERAK

Gure hasierako inbertsioa egiteko diru-sarrerak **bi moduz** lortuko ditugu, 10.000 € beharko ditugulako.

Batetik, S.L. bat sortuko dugunez, 3.000€ behar ditugu. 3.000€ horiek lortzeko, taldekide bakoitzak bere aurrezkietatik 1.000€ aterako ditu. Behin diru hau lortuta egon, 3.000 € izando ditugu eskuragarri hasierako inbertsioa egiteko.

Bestetik, bankuari **7.000€-ko mailegua** eskatuko diogu pastilla kaxak egiten hasten garenean, horrek dakarren gastuari aurre egiteko. Mailegu pertsonal bat eskatuko dugu, %5-ekoa, eta 5 urtetan amortizatuko dugu (60 hilabete). Ondorioz, hilabetero **94,36€ ordainduko** ditugu. Maileguari esker, lehenengo pastilla kaxak ekoizteak daukan kostuak estaliko ditugu.

Gure produktua **ekoizteak 13,19€** balio du. Pastilla kaxa bakoitza **69,99€-tan salduko** dugunez, pastilla kaxa bakoitzarekin **56,8€ irabaziko** ditugu. Hala eta guztiz ere, kostu aldakorrak eta finkoak kontuan hartu behar ditugu.

Enpresa honen errentagarritasun-atalasea aztertu dugu, hau da, zenbat unitate saldu behar ditugun galerarik ez izateko. Azterketa egin eta gero, atera dugu **irabaziak lortzen hasteko** gutxienez **91 pastilla** kaxa saldu behar ditugula.

Diru sarrerak	Diru kantitatea
Aurrezkiak	3.000€ (1.000€ lankide bakoitza)
Bankuko mailegua (mailegu pertsonala, %5-ekoa)	7.000 €
Pastilla kaxa bakoitzak emango dizkigun diru-sarrerak	56,8€/pastilla kaxa